

KULTUR ETA HEZKUNTZ GUNEEN IRAGANA EUSKAL HERRIAN: EUSKAL IKASKUNTZEN GARAPENERAKO GOGOETAK ETA PROPOSAMENA

Dr. Joseba Agirreazkuenaga Zigorruga

E.H.U.ko irakasle titularra

Eusko Ikaskuntzako lehendakariordea

The past of cultural and educational centres in Basque Country: Some reflections and project to develop research on Basques studies

During 19th and 20th centuries there are different cultural paradigms on Basque studies. In this paper I analyse the educational system at the end of *Ancien Regime*, when the civil society is emerging, civil wars are frequent and industry is taking off. At the same time, there are different styles of thinking off. At the same time, there are different styles of thinking about cultural and scientific productions. I distinguish and analyse the syllabus of the centre of political elite and the technical colleges for workers and peasants. I propose the High School on Basque studies to develop social sciences and humanities with different styles of thinking to construct the social reality of the Basque future.

Gure artean, esango nuke, gaur arakatuko dudana arazoa, gutxitan aztertua izan dela paradigma eta parametro zabalaren ikuspuntutik. Informazioa ugaria da baina han hemenka barreiatua eta modu zatikatu batez erakutsia. Bestalde Europako parametro konparatiboetan ez ditugu gure datuak oraindik orain sartu. Ez dugu ezta monografía gehiegirik, nahiz eta hezkuntza eta kultur giro batzuk besteak baino hobeto ezagutu. Baina edozein gizarte zientzietako ikerlari legez, hipotesis edo galderak planteatu behar ditugu, erantzun egokiak aurkitu asmoz, galdera barik nekez ezer argitu daitezkelako. Honako txosten hau, kronologia huts hutsa ez ezik, gogoeta tresna gustatuko litzadake izatea eta etorkizunari begira ikerkuntza eta kezka berrien abiapuntu eta inola ere ez helmuga (1). Horregatik, XVIII mende bukaeratik abiatuko bagara, bereziki XIX mendea aztertuz; XX mende bukaeran euskal kulturaren desafiari aurre egiteko zenbait gogoeta eta erantzun zehatz nahi genuke planteatu. Modu honetan, ohizko Euskal Ikaskuntzen kongresuetako joera geureganatzea nahi nuke. Hau da, azter-

(1) Euskal Ikaskuntzen IX Kongresuan, behin behineko panorama Saez de Santamariaren ponentziak erakutsi zuen. Zientzi, teknika, nautika eta merkatal irakaskuntzak ez dira hain nabarmenurik azpimarraturik aipaturiko txostenean, eta beste batzuetan. Deustuko Unibertsitatearen kasuko hastapenen balorapenaren gerora bihurtu zenaren arabera eginga da eta ez bere hartan, bere garaiaren garaiko egoeran kokatua. Dena dela, ikuspegi arin eta orokorra hartzen, aintzakotzat hartzeko txostena deritzogu. SAENZ DE SANTA MARIA C.: «La educación institucionalizada en el País Vasco en los siglos XVIII y XIX.» in *Noveno Congreso de Estudios Vascos*. Bilbao 1983, 279-292 orr. Bestelako lana eta gogoeta da ondoko liburua, interesgarriagoa gure ustez, nahiz eta mugatu xamarra agertu oraindik, ARPAL J.-ASUA B.-DAVILA P.: *Educación y Sociedad en el País Vasco* San Sebastián, 1982. IDEM: *Euskal Herriko hezkuntzaren historiari buruzko gai eta bibliografi gida* Donostia, Aurrezki Kutxa, 1986. Erabat interesgarria laburpen batez ikuspegi orokorra lortzen duelako XVIII menderarte, AZURMENDI J.: *Irakaskuntza eta pentsamendua in Euskal Herria. Historia eta gizartea, Historia y Sociedad*. Intxausti (editor). San Sebastián 1985

ketaren ondoren, unean uneko abagadunetan etorkizunari begira ondorio praktikoak burutz.

Baina goazen bada, gure kezka zientifiko eta praktikoak planteatzera lehenengo eta behin. Noiz eta nola gihartu zen euskal gizartean espiritu zientifiko edo pentsakera zientifiko, prenewtonismoa gaintzeko bidea? Noiz erakundetu zela esan dezakegu euskal kulturaren aldeko mugimendua eta zer nolako mamlz? Zer ulertu izan da euskal kultura legez iraganean eta gaur egunean, zein izan da euskal kulturaren paradigma? Zein izan da erakunde publikoen ekintzabidea, ikerketa eta kultur programei buruz? Lege zaharreko kinka larrian, eta igarobide prozezuan zer nolako inizatiba publiko eta pribatuak antolatu zuen giza kapitala aberasteko eta egoera berrira egokitzeko? Zer nolako kultur eta ikerkuntz erakundetzea gorpuztu zen eta da Euskal Herrian eta Europan? Elite politikoa eta euskal inteligentsiaren kurrikula akademikoak zentzuk izan dira XIX eta XX mendetan? Zein da gure desafioa? (2).

Lehedabizi bereiztu beharko genituzke: Giza eta gizarte zientzien inguruko gaiak eta zientzi-teknologiako sistemarenak. Bestalde momentu erabat desberdinak daude dinamika historikoari begiratuz: 1876 aurretik, bestea 1993 arte eta ondoren etorkizuneko Europakoa esango genukena.

1. PENTSAKERA ZIENTIFIKOAREN, HEZKUNTZ SISTEMA AUTONOMOAREN ETA IRAKASKUNTZ PRAKTIKO - BEREZIEN SORRERA ETA GARAPENA

XVIII medearen bigarren erdian, Ingalterra iraultza industrialaren fenomenoak gihartzen hasi zen eta XIX medearen erdian, Suiza, Belgika, Alemania ere atzera egin ezinezko garapen ekonomikoan, industrian oinarriturik, murgildu ziren. Euskal Herrian, industrigintzaren fenomenoak Bizkaian eta Gipuzkoan, XX mendean hasieran erabat finkaturik zegoen bitartean, gainontzeko euskal lurraldeetan ez da horrelakorik gertatzen. Igarobide esanguratsuan zera dakusagu: Salakerarik ez zela faltatu baina arrakasta ezik porrota ezagutu zen Nafarroako erdialdeko arantetan eta geldituen hori, 1950-60 hamarkadetan gaintu da.

Kultur eta hezkuntz arazoak eta bere ibilbidea, egoera sozio-ekonomiko eta politikoan kokatu behar ditugu. Kultur elkartean oinarri soziala eta jatorriaren zergatiak eta abar, aztertu beharra dago. Baina oraindik ez dago espazioarik horretarako. Beraz, zera esan genezake, kultur kezka eta euskal irakaskuntza deitu genezakena, azken 200 urtetan aldatuz

(2) CROMBIE A.C.: «Styles of Thinking and Historiography of Science» in *El científico español ante su Historia. La ciencia en España entre 1750-1850*. Madrid 1980, 13-25 orr.

joan izan zela eta ondorioz sortu ziren elkarteak ere bere kultur ekintzabidea uanean uneko abagadunean egokituz joan zirela.

Ingurune honetan XVIII mendearen bigarren erdian, izugarriko aldaketa eta iraultza esango genuke gertatu zela Euskal Herriko kultur eta hezkuntz ereduaren baitan, Ilustrazioaren argiak batetik eta Bergara bestetik ditugu erreferentziak. Bergarako Seminario Patriotikoa ildo zaharreko zaldunen kolegioen tankeran antolatuta bazen, bertan barruan, zaldun hauek jabe ziren, etorkizuneko mundua desberdina izango zela eta beraz ikasketa berriztatua beharko zituztela. Honela ikasgai esperimentalen gorakada nabaria izango da eta bestelako jarraipena bai, baina gutxiago. Bergarako mintegia ohizko irakaskuntza zentrua zen, zaldunak ondo heitzeko eta etorkizuneari buruzagi izateko. Baina bere garrantzia honetan zetzan: Bertan irakaskintza partikularrak izenekoak ikasteko aukera bultzatu zela, hau da zientzi esperimentalak, kimika, fisika, teknologia aplikatuak eta abar. Bertan paradigma zientifiko berriaren garapena finkatzen saiatu zen. Eta esango genuke, Euskal Herriari, paradigma zientifiko newtonianoaren agerpena, argi eta garbi *Los aldeanos críticos* (3) izeneko saiakerak erakusten du. Liburu hau Azkoitin biltzen ziren zalduntxoak, (Altuna, Narrosoko Markesa, Peñafloredako Kondea,) Islaren aurka produzituri-koa dugu eta eskolastika aristotelikoaren bazterketa eta Newtonen aurkikuntzetan oinarrituriko mundu ikuskera berriaren defentsa sutua dugu. Inkisizioak debekatu egin zuen eta beraz bere zabalkundearen nahiko murrizta izan zen. Hego Frantziako kolegioetan ikasiak ziren. Mintegia ideia horien egiaztatze momentua izango da eta euskal gizartean ikerketa zientifiko eta teknikoren hastapena. Baina ilustrazioaren ekarpenak eta argiak Euskal Herriko zenbait buruzagiren baitan eragin handikoak izan baziren, ezin dugu ahaztu kontrako paradigma ere indartsua izan zela. Hau da, gerora tradizionalistatza hartuko dena, ondo errotua zegoen. Apaizak eta eliz gizonak kontrailustrazioan nabarmenduko ziren eta ilustratuen artean apaizak egon baziren ere. Inkisizioaren beldurra ondo mamitua zegoen euskal gizartean. Moguelen *Peru abarka* nobelan, ilustrazioaren aurkako paradigma argi eta garbi protagonistak gihartuko du. Peru Abarkak, eredu literarioaren bidez, XVIII mende bukeran intelektualki bizi zen tirabira, ezin hobeto agiri digu eta Moguelen arketipoak, XIX-XX mendetan zehar, euskal kulturaren imaginarioan eta ibilbidean agertuko ziren. Benetako euskal mundua eta euskal izatea, baserriarregan zegoelaren ustea aurrerantzean ondo baino gehiago sustraituko zen. Baserriar mundu partikularra, euskal munduaz identifikatu da. (4) XIX

(3) Ikus Azkoitiko Altunak, Egiak eta batez ere X.M. Munibek idatzirikoa liburu: *Los aldeanos críticos o cartas críticas sobre lo que se verá* (1758) in ISLA J.F. Obras escogidas Madrid (Biblioteca de autores españoles) 1945, 367-393. Tradizioarekiko sortu behar zen etendura argi eta garbi adierazten dute. LAFUENTE A.: «EL P. Isla y el conde de Peñafloreda historia de una polémica entre antiguos y modernos en la España Ilustrada» in ALBARRACIN A., LOPEZ PINERO J.M. GRANJEL L.S. (eds), *Medicina e Historia*. Madrid 1980, 79-96 orr. Ikus ere, ikuspegi orokor eta jakingarria erakusten baitigu, PESET J.L.- LAFUENTE A.: «Ciencia Ilustrada e historia de la ciencia» in *El científico español ante su Historia. La ciencia en España entre 1750-1780* Madrid 1980, 97-125 orr.

(4) Salakera asko idatz dira Peru Abarkaren obrari buruz, baina oraingoan gure egitekoan buruz, BIDART P.: «Peru Abarca: espace imaginaire et «paradigme perdu» in *La production sociale des espaces*. Bayonne, Université de Pau et des pays de l'Adour. 1986, 32-44 orr. Bestalde aintzakotzat hartzekoa da, Moguelen partaidetza zuzena inkisizioaren zerbitzuan, (berak ere prozesua jasan bazuen ere) frantsez iraultzaren ondoren, Euskal Herriari zehar zeuden liburuak zirela eta ikus LARRAÑAGA Luis F.: «Actitud del clero vasco frente a los empeños renovadores de la Real Sociedad Vascongada *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, nº 25, 1969, 89-117 orr., eta «El proceso inquisitorial de Juan Antonio de Moguel y Urquiza» in B.R.S.V.A.P., 26, 1970, 263-272 orr. ALTZIBAR X. Juan Antonio Moguel (1745-1804). Gasteiz, Eusko Jaularitzaren publikitate zerbitzua. 1991

mendean beraz, giro erromantikoan, Moguelen paradigma nagusituko zen euskal kulturaren arloan.

Bergarako ikasketak Oinatik Unibertsitatean irakasten zirenekin konparatu daiteke, baina Oinatin instrukzioa eskaintzen bazen, ohizko gizarte estamentalentzat profesionalak hezitzen zuen eskribauak eta teologoak bereziki, barriz, Bergaran, egitura produktiboaren premiei loturik kezkatzen ziren, zientzi praktikoei bere esparru propioa irabazten dute. Honela teknologia, natur zientziak eta zientzi esperimentalen irakaskintzak interesgune bihurtuko ziren. Horra bada, berezitasuna. Zientzi zaharra eta berriaren arteko aldea zegoen Oinati eta Bergararen artean Aurrerakuntza garatzeko, hezkuntzaren garrantziaz erabat jabeturik zeuden. Baina European uste hau ez zen nagusia. Adibidez Frantziar De la Chatolausek kekuka zera idazten zuen 1760 urtean: « Oraingoan langileak ere nahi dute estudiatu eta gero zertarako konbentuetan sartzeko edo armadan eta gizartearentzat alperreko pertsonak bihurtzeko» (5).

Lege zaharreko gizartean sarritan ez zen behar ainako garrantziaz jabetu giza kapitalaren sorkuntzan eta osokuntzan, teknikazko eta irakaskintza orokorrak erakarritakoaz. Ikasketa prozesua, produktzioaren prozesuari erabat loturik aurkitzen zen. Bi zereginen arteko autonomia, hau da hezkuntz prozesuaren autonomia, industrigintzaren abiadarekin batera zabalduko da. (6)

Hezkuntz sare autonomoaren garapena: Bigarren mailakoa deritzona eta goi mailako irakaskuntza: Irakaskuntza teknikoak eta merkatal eskolak

Laburbilduz honako zentru hauek, bereiztuko genituzke: Lehen mailako edo hastapeneko eskola, lanbide eskolak edo irakaskintza praktikokoak, XIX menderdian sortzen dira bigarren mailakoak, eskola bereziak (nautika, merkataritza, teknikazkoak), eta Unibertsitatekoak. Euskal Herriko hirien baitan, Bilbo, Bergara edo Donostian gogoeta eta ikerketa zentruak indartuko dira.

Hezkuntz sarearen sorkuntza esperientzi desberdin bi somatzen dira European zehar: Britainia Handikoa eta Frantziakoa. Erresuma Batuan, lege zahararen garaian Eleizaren inguruko erakundeak alde batetik, tokian tokiko agentariak bestetik zein irakasle pribatuak arduratzen ziren hezkuntzaz. Eliza ez konformistek, «*Chapels*» izenekoek, jende arruntaren alfabetakuntza prozesuan eragin zuzen zuzena erakutsi zuten, bibliaren irakurketaren bidez norberaren neurriko espiritualitatea lortzea helburuetarikoa baitzen. Eta bere eragin berezia gaurdaino igertzen da, hezkuntz sarea Estaduko aparatu zentraletik at aurkitzen delarik. Iraultza frantzesaren ondoren, Estadua hezkuntza bere gain hartzeko asmoa erakutsi zuen eta goitik behera monopolizatzen eta zuzentzen saiatu zen. Modu honetan, hezkuntz eta kultur botere sorkuntza Foucaulten esanetan boterearen mikrofisika, kulturaren teknopolitika agiri da.

Euskal Herriari tokian tokiko udal, Kotsulatuaren moduko erakunde bidez edo fundazio pribatuaren babespean (kape-lanien errenten bidez) hezkuntz sare difuso, autonomo eta zabal indartu zela lege zahararen amaieran ikus dezakegu. Baina, lege zaharreko kinkaldian, XIX mendean lehen mailako eskolak eta hezkuntz zerbitzuak larrialdian zeuden, guden ondorioz zergen gorakada zirela eta, udalen eta delako fundazioen finantz arloak porrotean amildu zirelako.

(5) CIPOLLA C.M.: *Educación y desarrollo en occidente*. Barcelona 1983, pag. 127

(6) FOUCAULT M. eta beste *Espacios de poder*. Madrid 1981

Bestalde azpimarratu behar da katolikotasunaren barruan orden desberdinak, bereziki jesuitak, hainbat eskolaren eragile izan zirela. Baina XIX mendean Estatu Espainiarraren bilmoldaketa liberalen ondorioz, bigarren eredu, hots, Frantziarena indarrean jartzen saiatu zen. Iniziatiba autonomoentzat ez zen espazio gehiegirik gelditzen. Hala ere, Elizak jarraitu zuen bai, indartsu hezkuntza sarean. Baina erakunde autonomoen eraginez, (Diputazioak) saiakerarik ez zen faltatu. Eta ahalegin hauek, labor labor bada ere, azpimarratzea, beharrezkoa deritzat eta ondoen ezagutzen dudak kasutik abiatuko naiz, hau da Bizkaitik.

XIX mende hasieran lehen mailako irakaskuntza udalen esku eta fundazio pribatuen ardurapean aurkitzen zen aipatu dugunez eta adibidez, Bilbon XIX mende hasieran zortzi maisu 690 ikasleentzat eta lau andereño 307 ikasle neskatilentzat. (7)

Horrez gainera, Bilbon Lekeition eta Orduinan Jesuiten gidaritzapean kolegioak egon ziren, dohanik, beraz guztientzat, baina egoitza ordaindu behar zelarik. Zaldunen hezkuntza bereziko «Seminario de nobles» izenekoak ere sortzeko ahaleginak egin ziren. Herri Adiskideen Elkartek, pixkanaka eskolak eta irakaskuntza bereziak bere kabuz han hemen sortu zituen: Loiola, Donostia, Bergara, Bilbo, Gasteiz. Oinarrizko irakaskuntza eskaintzen zen (irakurri, idatzi, ortografia, oinarrizko arimetika) eta igandetan artisauntzat marrazki eta teknologia. Azken hau azpimarratu nahi dugu, zeren, gune produktibotik at, lanbide irakaskintzaren hastapena baitzen.

Markinan 1767.an Herri Adiskideek antolatu zuten bileran ikasketzen plangintza zehaztu egin zen: Maila bi bereizten ziren: Irakaskuntza orokorra, kultur hezkuntza oinarriturik eta irakaskuntza bereziak, praktikakoak, aplikapen tekniko zuzena zutenetarikoa. (8) Azkenik, Bergaran modu probisionalean Eskola sortu zen 1776.an eta urrengo urtean Erregearen onepena heldu zen *Real Seminario patriótico vascongado* izena hartzen zuelarik. Jesuita kanporatuen hutsunea betetzeko gogoz hasi ziren. Bergarako zentru hau izango da Herri Adiskideen benetakoa hezkuntz proiektua. Egitura produktiboan burutzeko ziren aldakuntza teknikoak eta beste porrotean amildu ondoren, hezkuntzaren argiak geroa aldatzera lagunduko zuelakoan, hezkuntz proiektuan ezarri zituzten beraien ilusioak. (9) Ilustrazioaren garaian ezjakintasuna dela erakuntza eta oker guztien sorburua pentsatzen zen (gogoratu iraultza frantzesaren ondoriozko lehen Konstituzioan beste horrenbeste azpimarratzen zela) Horregatik hezkuntza, ekintza pedagogiko-morala, ekintzabide zuzenena izan zitekeen eta batez ere, baliozko jakinduri erabilgarriak bultzatzen saiatu behar zen, («*saberes útiles*» «*artes útiles*») oinarrizko egitura materialak aldatzeko asmoz. Jose Agustín Ibañez de la Renteria laburtuko ditu idazlantxo batetan: «*Idea de una sociedad patriótica*». (10) Zaldun prestu, eta jakitunak hezitu behar ziren eta hainbat bilbotar, gero buruzagi merkatariztan eta politika arazoetan izango zirenetarikoa Gomez de la Torre, Ibañez de la Renteria, J. Mazarredo eta abar Bergaran ikasi zuten. Duela gutxi, K. Larrañagak liburu bikain batetan, Ilustrazio garaiko Bergarako ikastegiaren barri ezin hobeto irakutsi du eta ez dut uste luzatu behar naizenik. (11)

(7) LABAYRU E: *Historia general del Señorío de Bizcaya*. Bilbao (la Gran Enciclopedia vasca) 1969, ed. facsimil, VI liburukia, 635 orr

(8) SILVAN L: Algunas características del plan cultural patrocinado por la Real Sociedad Vascongada» in *Las reales sociedades económicas de amigos del país y su obra*. San Sebastián 1972

(9) ELORZA A.: «La Sociedad Vascongada de los Amigos del País Educación y política.» in *Las reales sociedades económicas de amigos del país y su obra*. San Sebastián 1972,60 orr.

(10) ELORZA A.: «La sociedad Vascongada de los Amigos del País. Educación y política.» en *Las reales sociedades económicas de Amigos del país y su obra*. San Sebastián 1972,58-61 orr.

Bergarako XIX mendeko gorabehera guztien gainera Gipuzkoa eta Euskal Herriko irakaskuntz zentro garrantzitsua izaten jarraitu zuen. Beharbada zera falta izan ziteza: Goi mailako irakaskintzaren zentro bihurtzea batez ere 1851ean oportunitate historiko ezin hobea aurkeztu zenean eta erdi mailan gelditu zen. Bergarako Erret Mintegia, 1804 an Real Seminario de Nobles bihurtu zen, Gobernaren babespean. Napoleonen garaian, *Liceo Vascongado* izenez ezagutu zen eta 1822-23 Unibertsitatearen izena ere lortu, liberalismoaren gunea bihurturik zegoenean 1840an erdi mailako irakaskuntzak ostabere indarrean jarri ziren eta 1842. probintziko Institutoa bihurtu zen, hiru urte beranduago bigarren mailako institutua izendaturik: *Instituto Superior Guipuzcoano de Segunda Enseñanza*, 1863tik 1873 Donostian ere bigarren mailako institutua indartu zen eta 1880.eko urtez geroztik, Donostiakoa izango zen institutua zentrala probintzi mailan. (12) Ortes de Velasco, Bergaran ikasle izana. Herri adiskideen ekintza berpiztu nahi izan zuen Gasteizen. Honela 1818an. Marrazkiko eskola antolatu zuen eta beste bat lanbide eskola gisa (13).

Lanbide eskolen arloan, bereziki nautika eta merkataritzaren arloan, Bilbon aurkitzen zen hezkuntz azpiegiturarik egokiena. 1739.eko Gernikako batzar nagusiek, matematikaren irakaskintza («*escuela y enseñanza de mathematica*») Bilbon sortzea erabaki zuten. Jaurerriak Bilboko udaletxeak eta Kontsulatuak bere gain hartu zuten finantziarioaren arazoa. (14) Kontsulatuak desagertu zenean 1830.eko hamarkadaren hasieran, 1833.an Nautikazko eskolaren arautegi berria idatzi zen eta *Junta de comercio* delakoak bere gain hartu zuten Kontsulatuak utzi zuten erantzukizuna.

Donostian Kontsulatuak izan zen 1765.an, Nautikazko eskolaren fundatzailea. 1829an Kontsulatuaren legezko amaiera erabaki eta gero, 1839.an guda karlistaren ondoren Donostiko udala eta Merkatal Juntaren artean Instituto *de estudios técnicos* delakoa sotu zuten eta bertan 1840.an fundatu zenean, merkatarizari, nautikar eta giza zientziei loturiko gaiak irakasten zuten. 1848.arte iraun zuen eta azkenik. Nautikazko eskola gisa 1851.an berrindatu zen (15).

(11) LARRANAGA K., *Las manifestaciones del hecho ilustrado en Bergara*. Bergara. 1991

(12) MENDIOLA R.: *La vida cultural en San Sebastián. Anotaciones histórico-restropectivas*. San Sebastián 1963, 74 orr.

MENDIOLA R.: *Los estudios en el Real Seminario de Vergara*. Vergara 1961

(13) ARANEGUI M., «Don Luis de Ajuria y su tiempo» in Boletín de la Institución Sancho el Sabio. 1972, 193-216 orr.

(14) 1740 eko batzar nagusian zera esaten da. «Se habilite la juventud en la Nautica y matematica, para que de esta suerte aya personas en este Señorío, que se exerciten en el Servicio de su Magestad, en las ocasiones que ocurrieren de práctica, ciencia y experiencia de mar» eta Lekeitioko Joseph Vicente de Renteria izendatu zuten «Maestro director de esta facultad» Fragatak kapitaina berau, 1738.an ondoko liburu argitaratu zuen Baionan: *Explicación del Círculo náutico, astronómico universal*. 1742.an Miguel Archer, bilbotarra matematikak eta nautika irakasteko izendatu zuten eta 1752 an zera argitaratu *Lecciones náuticas explicadas en el Museo mathematico de este M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya, Villa de Bilbao y su Universidad y Casa de contratación*. Urrengo irakaslea, urte askotan Ignacio Albiz izango zen.

Pilotoen azterketak eta tituluen banaketa, (kapitana, maestra edo patrola) Kontsulatuak Priora eta kontsulen esku zegoen, kontsulatuak ordenantzetan agintzen zen erara 1784.an aldiz, eskolaren maila eta zuzentasuna ikusi ondoren, erret eskola bihurtu zen, erregearen babespean Aurrerantzean Eskolako maisua izango zen azterketaren arduraduna («informado de la suficiencia del maestro Don Ignacio de Albiz y del buen orden y método que sigue en su enseñanza»), 1783 eko erret aginduak adierazten zuen erara. 1798 an Albizen semeak hidrografiako maisutzaren plaza, interino legez eta bere altaren ordezkantza betetzeko, hartu zuen.

(15) MENDIOLA R.: *La vida cultural en San Sebastián. Anotaciones histórico-restropectivas*. San Sebastián 1963,38 orr.

ANABITARTE B, Gestión del municipio de San Sebastián en el siglo XIX. San Sebastián, 1903.

Bilbon 1797.an «marrazki», eskola (lanbide teknikoak ikasteko, arkitektura, azpiegitura lanak, injiniantza lanak, lur neurketak eta abar behin behinekoa berau) Herri Adiskideen elkar-tearen ekimenez indarrean zegoen. Lehen mailako iraskintzaz gain, igandetan, eskola praktikoak zabaltzen ziren, hiriko artisausak bertan parte hartzen zutelarik (16).

Herri Adiskideen batzarreak, hirietan, ospe handiz ospatzen ziren. Azken batzar nagusia, 1793.ekoa, Pablo Epalzaren aitzindaritzapean, Bilbon egin zen. Balantze bat ere egin zuen, adieraziz, lortu ziren aurrerapenak nabariak zirela. Herri adiskideen eraginari esker «*en algunos ramos de las nobles artes y ciencias matemáticas, química y mineralogía*» (17).

Hauxe genuen goi mailako ikerketa eta irakaskintza sostengatzen zuen erakunde sendoa. Baina giro hau desagertzen hasi zen, besteak beste Konbentziozko gudak ondorio txarrak besterik ez ztuclako ekarri. Bergarako Ikastetxea, hospitala bihurtu zen. Irakasleak eta ikasleak Gasteizera iheska joan ziren. Humboldték aldiz, idatzi zuen frantzesek dena errespetatu zutela. (18) 1798.an berriro ireki zen Seminarioa: Badirudi giroa ez zela hain kementsua, bigarren aldi honetan Hara Humboldtén testigantza, Berlingo Unibertsitateko sortzaile eta hezkuntz arazoetan murgildua Prusian: «*lo que más me chocó en mi rápida visita fue que jóvenes todos nobles y vanos que son hijos de grandes, no reciben alla, ni con mucho una educación liberal. Y calculada de la conducta externa...la mayoría de los seminaristas aunque no todos, son luego militares*» (19). Dena dela, 1820an jadanik, liberal ideologiaren gunea zen Seminarioa.

Baina Bilboko merkatarien artean, lanbide irakaskuntza praktikoen tradizioa ez zedin eten, hau da nautika, marrazki eta merkataritzaren ikasketak, ahalegin guztiak burutu ziren. Iniziatiba berria kontsulatuko buruzagiena zen, hau da Bilboko merkatal burgeseriarena.

XVIII mendearen bigarren erdian, merkatal irakaskintzak Europako erresumetan (Bretainia Haundian, Rusian, Prusian eta abar) arautzen hasi ziren eta eskolak fundatzen (20). Beraz Bilboko merkatariek, zuhur zeuden betarik ez galtzeko. F. Quadra Salceldoren eritzian Bilbon ekonomilarien eskola moduko bat sorturik zegoen. Gogoratu besterik ez Arriquirarren lana eta Inglaterrarik harturik estadistikaren zabaldundea arazo publikoen konponketetarako, azpimarratu zuela. Ez da bada, harritzekoa, 1800.ean, Kontsulatuaren eraginez, merkatal

(16) LABAYRU E., Op. cit. 635 Maisu bat zen ikasleak 95 eta morroiak 2. Nautikan 14 ikasle eta maisu bat, Latinitatea ikasten 20 ikasle eta maisu bat. Guztira Bilbaon bertan ikasten 129 ikasle zeuden.

(17) Epalza «en que hizo patente el estado, en que se hallaban las Provincias vascongadas al tiempo de la erección de la Sociedad y los adelantamientos que al presente se notan en algunos ramos de las nobles artes y ciencias matemáticas, química y mineralogía» *Extractos de las Juntas Generales...* Bilbao 1793.6 orri. Edizio facsimila, Donostia 1985. Ikus ere: ECHEGARAY Fernando: *Los vizcainos de antaño en la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del país* Bilbao (Banco de Bilbao) 1965, 23-31 orr.

(18) «Los franceses han respetado la institución, no habiendo destruido nada ni tampoco hurtado. Por el contrario, se destinó el edificio para habitación de las tropas españolas, y estas son quienes han destruido varios de los instrumentos en el pequeño laboratorio de Física» GARATE J.: *G. de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*. Bilbao 1933, 22 orr.

ARRIOLA R. berriz hau idatzi zuen: los invasores(frantzesak) saquearon la villa y dejaron completamente destruidos los gabinetes de Física, Química, Mineralogía y los laboratorios del Seminario patriótico, además de ocasionar considerables destrozos y deterioros en el edificio» *Los estudios en el Real Seminario de Vergara*. Vergara 1961,41 orr.

(19) GARATE J.G. Humboldt . . . 23 orr.

(20) Ikus liburu jakingarri bat eta guretzat abiapuntu garrantzitsuena izan dena atal hau azaltzeko: PONS Y MERI Jose: *Reseña de la Escuela Superior de Comercio de Bilbao*.Bilbao 1893

ikaskuntzak, arautzeko proiektu baten asmoa azaltzea Helburua, matematikak, hizkuntzak eta geografia irakaskintzak garatzea eta premia berriei egokitzea. Urte batzuk galtzen dira eta 1804 ean kontsulatuak bere finanziaioz lau eskola edo katedra sortu zituen: Matematikak, merkataritza, hizkuntzak (frantzea eta ingelesa). Baina proiektu honek porrot egin zuen. 1807.an berriz zehazten da proiektua, ikasgai bakoitzaren programaz eta guzti. Bolsaren egoitzan ezarriko zen Eskola berria. Ikasketen plangintza honako hau laburki: Merkataritzaren, metodoak, aurauak, kontabilitatea eta abar. Merkataritzaren geografia, herrialde bakoitzeko egoera, historia, Hizkuntzak: Frantzea eta ingelesa. Baina alperrik. Godoyren izenean Jose Espinosak «Secretario del almirantazgo» ikasketen plangintzari buruz erantzun zien: «... que su ejecución es preciso dejarla para tiempos más felices que el presente.» (21)

M. Callejak, apaiz liberala berau eta J. Gonzalez de Tole-dok 1816.an, hutsunea bete asmoz, Kontsulatuaren laguntzarekin «*Colegio de Santiago*» izenekoa sortu eta antolatu zuten. Lehen eta bigarren mailako irakaskintza ez ezik, merkatal ikasketak ere irakasten hasi ziren. 1820an, «*Casa Pension de Bidebarrieta o Colegio de Educación de Bilbao*» fundatu zen.

Kontsulatuak bere kabuz, 1817.an bere dohanezko Eskolak sortzea erabaki eta 1818.eko arautegi berria aurkeztu zuen Oinarrizko matematikak, marrazkia, ingelesa eta frantzea 1818.an, Alberto Lista-k lehiaketan irabazi zuen matematikazko katedra eta berehala kontratatu izan zen. Harrezkero bera izan zen Merkatal irakaskuntzen lehen zuzendaria eta hainbat bilbotar liberalen maisua. (22) Garrantzi handikoa eskola izan zen, jakituriaren gune baten giltzarria alegia Bankaren teknika, hau da kapital finantzioaren gorabeherak ondo azaltzen ziren eta prestakuntza arautu honek seguru izango zuela bere eragina, ondoko urteetan Bilbon merkataria eta finantzio trebeak sortzeko tenorean. Lau ziren beraz, bertako katedrak, Oinarrizko matematikak, frantzea, ingelesa eta marrazkia, azken hau, batez ere marrazki tekniko bezala ulertu behar delarik, hots, injineritzarako eta arkitekturarako oinarrizko marrazki eta arazo geometrikoak irakasten ziren.

Hala ere Santiagoko kolejoak jarraipena izan zuen, gudu karlistaren garairarte, hau da 1837arte iraun zuen. Eta 1829.an, ohizko burdinolen berrikuntzarako ikasketa barriak, Bizkaiko Diputazioaren babespean antolatu zituzten, mekanika, energia hidraulikoan eta suteagiko arazoetan azken aurkikundeak eta aurrerakuntzak irakatsi guran, olagizonen jakituria goratu asmoz. Baina dirudienez ez zuen arrakasta nabarmenik lortu.

Guda ostean, 1840an, Diputazioa, Bilboko udala eta Merkatal batzordearen laguntzaz (honezkerok Kontsulatua desagertu egin zen eta merkatarien ordezkari legez Merkatal batzordea edo Junta de Comercio delakoa antolatu zen) literatura eta giza zientzietako irakasle batzuen eraginez, «*Colegio General de humanidades*» delakoa antolatu zen. Lehen eta bigarren maila ez ezik, merkataritza eta hizkuntzen irakaskintza

(21) PONS Y MERI J.: Op. cit eraskineko 6 eta 7 dokumentuak

(22) JURETSCHKE Hans: *Vida obra y pensamiento de Alberto Lista*. Madrid 1951,81-83 orr.

(23) Zuzendaria Felix Ascuenaga. Batzorde zuzendaria: Mariano eguia, Miguel Median, Pablo Epalza, Manuel Urioste de la Herran, Manuel Antonio Uhagon, Jose Ramon Olabarria, Pedro jane, leonardo torres Vildosola, Manuel María Guendica, Braulio zubia, Antonio Goicoechea Jose Zabibura, Modesto Gutierrez Peña, Juan Jose Zarrabeitia. Ikus daitekeenez, Bilboko liberal moderatu eta fueristak dira batzorde horretan agiri direnak Bizkaiko Artxibategi Nagusia. Bilbo, Libro de Acuerdos 1840.eko urtarriak 26

eraturik gertatu ziren. (24) 1841.eko Apirilaren 14an, Gernikako Batzar nagusiak Euskararen katedra fundatzea onartu bazuten, J. Ullibarri euskaltzalearen aspaldiko asmoa, badirudi ez zela indarrean ezarri.

Ikasketak egiteko Ikasleria gero eta ugariagoa zenez gero, azkenik, hiru erakundeak bultzaturik, eraikuntza eder bat gaur egunean Unamunoren plaza den lekuan eraiki zen, 1840.an, Diputazioak Bilboko udaletxeak eta Merkatarien erakundeak, *Colegio general o de humanidades de Vizcaya* delakoa antolatu zuten eta 1842.an atek ireki zituen, oinarriko, bigarren mailako eta merkatal ikasketak, ingelesa eta frantsesa irakasteko. 1847.an Bizkaiko *Colegio-Instituto* delakoa bihurtu eta 1851.an edifizio eder eta berrian kokatu zen.

Bizkaiko Kolegioa, Instituto provincial mailaz homologatua izan zen 1847an, Colegio- Institutoa batez ere Bizkaiko Diputazioaren babespean egon zen. Bigarren mailako irakaskintzaren gain eraikuntza berean, laster merkatal, nautika eta maisutzarako ikasketa arautuak (maisutza eskola Batzar Nagusietan 1853.an eskatu ziren eta bere 1862an hasi ziren ikasketak) erakutsiko zuen azken hauek ohizkoa zen bezalaxe Bilboko udalak eta *Junta de Comercio* laguntzarekin. Hasiera batean, ikasleriak *Colegio Instituto* delakoa finantziatuko zelakoaren ustea bazegoen 1850eko hamarkadan. Bizkaiko kutxa nagusitik Diputazioak 600.000 erreale zahutu zituen (25) XIX menderdian, Bilboko hezkuntz eta kultur zentro nagusia bihurtu zen, goi mailako ikasketak burutzeko ikasleriak Euskal Herritik at joan behar zuelarik. Eraikuntza berrian, 1862 urtez geroztik, «igandeko eskolak» antolatu ziren. San Vicente de Paulen konferentziak eraginda. (26) Eskola hauetan, langile xeheentzat aukera eskaintzen zen, prestakuntza teknikoan eta hezkuntza orokorrean behar hainako gaitasuna lor dezaten. 1867.an Bizkain Igandeko («dominicales») hiri eskola publiko zeuden, bertan 170 ikasle, 9 urte baino zaharragoak, ari zirelarik. Pribatuak aldiz, 4 igandeko eskola, 179 ikaslekin. (27) Iruñean ere 1869.an artisauek eta langileentzat gabez eta jai egunez eskola bereziak antolatu ziren, baina arrakasta haundi gabe (28). Langileen artean ere garai honetan elkarren arteko laguntzarako soziedade edo elkarte bereziak antolatu ziren. Hauek, batzuetan laguntza soila luzatzen zien, gaisotasunean edo heriotzean. Baina bestetan, kultur toki eta hezkuntza hartzeko edo aisea eratzeko antolakundeak ziren. Honela, artesautzan ari ziren langileen artean, 1870 urte inguruan, kultur giro berezia sortzen ari zen, langile berezi hauen kultura. Mende amaierarte, honelako antolakundeak sindikalgintza modernoaren hastapenak jorratzen zeudela esango genuke eta kultur kezka eta ohitura bereziak. Delako langile artesau honen parean fundatu berri ziren lantegi haundietan, adibidez Boluetako Santa Anan, teknika berriak ikasteko sistema arautua ere ba-

zegoen antolaturik. Langile proletarizatu hauek, beste ohitura eta kezkatan murgildurik zeudela esango genuke edo bere portaeratan hala agiri da behintzat.

Goian aipatu dugun bezala, azkenik, kontsulatuaren eraginez, 1819an, merkatal irakaskintza berezien zentroa martxan ezarri zen Bilbon Pons y Merik buruturiko lan bikainean, zera erakusten du: atzerriko beste eskola askotan baino lehenago arautu zirela Bilbon, merkatal ikaskuntzak, besteak beste Parisekoa baino lehenago. (29) Eskolaren inagurazioan, Aldekoak kontsulatu-ko priorak esaten zuen, eskolaren fundazioa, herrialde zibilizatuaren islada zela eta gero A. Lista zuzendariak zientzi praktikoen goraiapena egin ondoren, zera adierazten zuen Bilbon: «*Comparense dos pueblos, uno mercantil, otro puramente agricultor; y en igualdad de otras circunstancias, se hallará en el primero mucho más espíritu de civilización y más amor a las artes y ciencias*» Merkatarien erakundearen aurrean ari zen hizketan, baina egia esan, merkatal hiri baten ustea adierazten zuen. Baina zera ere azpimarratu zuen: «*Yo a lo menos veo siempre ligados en la historia los progresos de la civilización con los de las bellas artes*». Honela bukatuz: «*Hay medios ya en esta villa para instruirse a fondo en las ciencias exactas, en el dibujo, en las humanidades y lenguas sabias*. (30)

Merkataritzarako eskolan, irakasle andana garrantzitsua bildu zen eta ez bairik gabe, Bilboko inteligentsiaren erakusle dugu berau (31). Bertako irakasleak, institukoarekin batera, Bilbon, ikasketarako giroa sortu ez ezik, Bilbori buruz ikerketak burutu zituzten aipagarrienerarikoa Gabino Epalzaren Bilboko bizimailari buruzkoa. (32) Merkatal eskola honen garrantzia gure historiografian ez da behar den beste goraiatu. Horregatik, labur bada ere gainbegirakada batez erakutsi nahi nuke bere bilakaera, Europan egiten zenarekin, arlo honetan behintzat baikorrak izan genezake Kontsulatua desegin ondoren, Junta de comercio delakoak bere gain hartu zuen merkatal gaien irakaskintza. Txarka marka, 1849. arte eskolak bere ohizko ildo jarraitu zuen eta 1850.an irailaren 8. emaniko dekretorekin bidez, Estatu mailan merkatal irakaskintza arautu zen. Maila bi bereizten ziren, oinarrikoa eta goikoa. Urte horretarako Europa mailan ezagunak bihurtu ziren Ambereseko goi

(29) PONS y MERI J. Reseña.... 80-81 orr.

(30) PONS Y MERI J. Op. cit. Eranskina *Reseña de la apertura de los estudios comerciales de Bilbao en 1 de Marzo de 1819 publicada por acuerdo del Consulado de esta Villa para perpetuar la memoria de tan fausto día, conteniendo el acta de instalación y los discursos leídos por el Prior, Don Manuel María Aldecoa y el Catedrático y Director Don Alberto Lista*.

Aipatu behar da Bilbon XVIII mende bukaeran eta XIX hasieran Arriquiribarrek J. Uria Nafarrondo, Lista, Jose Urcullo, liburuak argitaratu zituzten Garaiko jakinminaren erakusle dugu

(31) 1859-1860 eko irakaldek hauek ziren:

- Arimética mercantil y teneduría de libros»: Miguel Gomez Maraño, Manuel Naveran, Gabino Epalza, mariano Azcuenaga, Eduardo T. de Echevarria.

- Practicas de contabilidad Mariano Azcuenaga, Miguel Gomez Maraño, Gabino Epalza, Eduardo T. de Echevarria.

- Geografía y estadística comercial Gabino Epalza, Sergio de Moya, Juan Canelo Mena, Francisco Antonio Calero, Telesforo Setuain, Antonio Arluciaga, Clemente Vidaurre.

Economía política y legislación mercantil José Antonio Otaduy, Sergio Moya, Juan Cancio Mena, Telesforo Setuain, Antonio Arluciaga, Clemente Vidaurre.

Lengua Francesa Juan Venancio Ureta. Miguel a. Vitoria.

Lengua Inglesa: Francio Acha, eduardo Martín Peña, Federico Sarria, Gustavo Rochelt.

(32) EPALZA Gabino: *La mortalidad de Bilbao y cálculos relativos a la duración de la vida en dicha villa*. Bilbao 1858. Autore honek, Historia natural para niños eta Geografía comercial y estadística liburuak argitaratu zituen 1860 eta 1861 urteetan. E.T. ECHEVERRIA: *Breves nociones de comercio*, 1860an argitaratua GODAZARENA J.B.: *Resumen del derecho mercantil marítimo de España.. 1867.an inprimatua*. VIDAURRE C.: *Resumen de lecciones de economía política 1874.an argitaratua*.

(24) Honako ikasgaiak azaltzen ziren: Lehen mailakoak, «gramática castellana, historia, geografía, teneduría de libros, estudios filosóficos, lengua francesa, inglesa, dibujo, pintura, música (vocal e instrumental) baile» Hau da esan genezake Colegio de Santiagoren ildo jarraitzen duela. Ikasle bakoitzaren gastua urteko 2.600 errealekoa zen. Ikus: El Vascongado, 53 zenbakia, 1840.eko abenduak 18

(25) AGIRREAZKUENAGA J.: *Vizcaya en el siglo XIX. Las finanzas publicas de un estado emergente*. Bilbao 1987, 520 orr.

(26) Bizkaiko Artxibategi Nagusia. Bilbon. Libro de Acuerdos de la Diputación.

(27) Bizkaiko Jaurerriko artiboa. Gernika. Estadísticas varias, 11 Registroa, 7 legajoa.

(28) Ikus PÉREY GOYENA, Antonio: *Ensayo de Bibliografía navarra*, VII liburukian, 80-81. orrialdetan aipatzen dituen hiru dikumentuak: *Enseñanza libre y gratuita dedicada a la clase artesana en el Instituto Provincial de Pamplona. 1869. Cuadro. Asignaturas de Enseñanza Libre y gratuita dedicadas a la clase artesana en el Instituto Provincial de Pamplona. 1869. Enseñanza Libre y Gratuita Dedicada a la Clase obrera en el Instituto Provincial de Pamplona. 1869.*

mailako Merkatal Ikastegia. Leipzigeko goi mailako merkatal eskola 1831 urtez geroztik indarrean agiri zen eta Lisboan 1844.eko urtearen ondotik. Bilboko Eskolaren bilakaera bi epe-tan zatituko dugu: 1850tik 1900: Garapena eta hazkuntza aldia. Iraultza industrialaren garapena eta bere krisialdi ziklikoak ekonomilarien baitan kezka eta teoriaren ausnarketa sortarazten zuen. Eskolan, ekonomia politikoaren garrantzia gero eta garbiagoa zen batez ere 1887.eko plangintzaren ondoren. 1850tik 1887.era institutoarenpean zeuden ikasketak. Geroztik, autonomoak bihurtu ziren merkatal ikaskuntzak. Urrengo urtean, Eskolaren izenburuan Goi Mailakoa jartzea irabazi zuen, Madrid eta Barcelonakoaren parean. Ikasleriaren kopurua ere gorantz zihuan 1892-93, 885.koa zen. Europako beste eskolak zituzten izplitzat. Hamburgo eta Ambereskoak bereziki, Eskola honetan ikasi zutenak sarritan Ameriketarantz abiatu ziren eta bertan negoziak burutzeko, benetako trebezia erakusten zutelaren ospea, irabazi zuten. Bigarren epea 1920arte dela esan dezakegu. Epe labur honetan hainbat erreforma gertatu ziren, Eskolaren garrantzia hedatuz, eta gai barriak, administrazioari loturik, irakasten zirela, 1920 *Intendente mercantil y actuarial* izenekoak hartu zituen eta *Escuela de Altos Estudios Mercantiles* deitzen zena, edifizio barri eta guzti, 1827.an inaguratu zen. Laburbilduz, esan beharra dago, Eskola honek, Bizkaiko eta Estatu mailako industria eta finantza arloko goi mailako managerrak eta zuzendariak hezitu zituela. Giza kapitalaren hezkuntzan, bereziki goi mailakoarenean, Euskal Herriko ezinbestekoa bihurtu zen eta ez dago zuzen zuzenik ponderaturik gure gizartearen. Deustun, Agirretarren fundazioaren laguntzaz, 1916.an *Universidad Comercial* delakoa fundatu zen. Iraultza industrialaren garapenak, merkataritzan eta enpresa industrialen gidaritzarako jende prestatua eskatzen zuen eta zentro berri honek, aipaturiko premia betetzera zetorren, batez ere enpresa buruen hezkuntzan iharduteko, Lovainako eskolen eredupean.

Eskola edo goi mailako zentro teknikoaz ere kezka bizia zegoen. Gorago aipatu dugunez, Donostian, 1839.an jadanik, *Instituto de estudios tecnicos* delakoa fundatu zen eta Bergarako Institutora loturik zegoen. Ez dakigu zehatz mehatz zertan ziharduen instituto horrek. Dena dela, Bergaran 1851.an, Sevilla eta Barcelona bezalaxe, lehen Eskola industrialia, fundatu zen; hamar urte baino ez zuen iraun Bergarako esperientziak (33). Baina ondorio nabarmenik gabe, zoritxarrez. Gerora, Bilbon Injeniararen goi mailako Eskolak, XIX, mende bukaeran momentu barri baten hastapena ekarriko du, nolabait, teknologiaren arloan, eragin handiena izan duen eskola, ezbarrik gabe.

Bi eskola hauekin, goi mailako irakaskintza unibertsitarioren panorama indartzen zegoen. Baina Unibertsitatearen projektua, bere osotasunean, beti porrotean gelditzen zen.

1866.eko urtez geroztik, lau euskal diputazioak, zerbitzu amankomunak sortzeko politikan ari zirela, besteak beste Universidad vasco-navarra delakoaren projektua asko aurreratu zen, baina 1868.eko matxinadak geldiarazi egin zuen. Gerora, Oinatin eta Gasteizen Unibertsitate Libreak antolatu baziren, euskal lurraldean biztu ziren gerrak direla eta pikutara joan ziren delako unibertsitate libreak. Gasteizeko Unibertsitatea dugu aipagarriena bertan lehendabizikoz eta modu modernu batez, giza eta gizarte zientzien goi mailako irakaskuntzari ekiteko asmoa sortu zelako. Euskal Herriaren geroak, delako uni-

bertsitatearen premia behin baino sarriago somotuko zuen. Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1870.eko batzarrean Unibertsitate katolikoa fundatzeko asmoa erakutsi zuten. Baina gudu giroak deusestu egin zuen ere egitasmo jakinkarri hau.

Behin Oinatik Unibertsitatea 1901.an desargertu ondoren (34), Unibertsitatearen premia gero eta larriago zen, goi mailako eskola teknikoak eta merkataritzakoak giharturik egon arren. Berez goi mailako hezkuntzaren erakundetze arautu eta publiko, garai hartan «estatala», eskatzen zen. Deus ere ez zegoelarik ezin daiteke baieztatu, baina zelan unibertsitateko ikasleria emendatu, euskal gizartearen barrizatze prosezua- ren ondorioz, unibertsitate arautu baten gabezia, gero eta larriagoa zen, ulertezina.

Eusko Ikaskuntzaren sorreran, Euskal Unibertsitatearen premia agiri zen. Erakunde bera, hutsunea betetzeko modu bat izango zen. Hasieratik planteatu zen. Projektuan buruz Euskal Herrian ere eztabaidak sortu. Hala ere 1923.eko txostenaren bidez saiatu ziren euskal unibertsitatearen projektu orokorra burutzen. Euskal Herri mailakoa izan beharko zuelarrik, eta ez Bilbokoa. Baina ahalegin guztiak alperrik, Estaduko administrazioak begi onez ez zuelako ikusten baina bertoko erakundeak, Diputazioak, behar hainako ahaleginik ere ez zutelako burutu (35).

Dena dela Eusko Ikaskuntza elkartearen baitan, Leoncio Urabayenen proposamenak azpimarratu nahi nituzke. (36) Euskal Herriko hezkuntza eta kultur sistemaren zulo beltzak, 1920 urtean argi eta garbi ikusi zituen eta hainbat projektu aurkeztu ere Eusko Ikaskuntzaren barruan baina arrakasta haundi gabe. Bere ikuspegia zabala eta gizarte industrializatu bati zegokiona, zen, Iruinan bizi arren. Langileen hezkuntzaz eta kultur mailaz kezkatuak zegoen. Eta Europako eta Ipar Ameriketako estaduen ekintzabideetara so eginez, Euskal Herriak bere ahalegin kulturalak eta ikerketa mailakoak burutu behar zituen. Euskaltzaleen biltzarretan bizi zen kultur giro negartiaren parean, euskaltzaleen ildoan kokaturik, bestelako proposamenak ziren. Baina guztien artean oraingoan bat azpimarratu nahi nuke, gaur egunean Eusko Ikaskuntzaren eta euskal ikaskuntzen ikerketa eta zabalkunderako interesgarria izan daitekelako, bukaeran azalduko dudana bezalaxe. 1928.an L. Urabayen euskal unibertsitate «zabala» «irekia» eta librea pixkanaka martxan jartzea proposatu zuen ekintzabide zehatzaren bidez, geroko gerora itxaron gabe, projektu haundi eta konplexua barik, zehatza eta mugatua. Hau da arautegi ofizialetik at, baina unibertsital mailari egokiturik, ikerketak modu tutorial batez, zuzenduko lituzketen irakasleen bidez, ikerketa zentro unibertsitarioa asmatu. (37) Nolabait, «urruneko» edo unibertsitate «irekia». Baina ideia eder horiek ez zuten laguntzarik eza-gutu. Euskal Herriko dirudunen artean kultur zaletasunik, kulturari bere alde produktiboa diru etekinak irabazteko, ez zen ageri zoritxarrez.

Beraz laburbilduz esan dezakegu, XVIII mendeko zaldunen kolejoiek, Bergaran sortu zen Erret mintegiaren ereduaren aldaketa ezagutu zuten. Bergaran irakaskintza bernak, gizarte berria zuzentzeko gai jakingarriak erakusten salatu ziren, hau

(34) LIZARRALDE J. A.: *Historia de la Universidad de Sancti Spiritus da Oñate*. Tolosa, 1930, 453 orr.

(35) *Memoria y bases para la resolución del problema universitario en el País Vasco*. San Sebastián, Eusko Ikasuntza, 1923

ESTORNES I, *La sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikasuntza a la cultura vasca*. 1918-1936. San Sebastián 1983, 215-234 orr.

(38) J. Javier Granjan artikuluan oinarritzen gara, Urabayen ideien barri emeteko. GRANJA J. Javier, «Leoncio de Urabayen y la Sociedad de Estudios Vascos» in RIEV, 1985, T.XXX, 353-384 orr.

(37) *Ibidem*, 371 orr. 1928.an aurkezturiko projektua.

(33) Bilbon ere antzeko proiektuak aurkeztu ziren prentsan: Adibidez *La villa de Bilbao* egunkarian FERNANDEZ SEBASTIAN J.: El euscalduna: del moderantismo al carlismo. La inflexión ideológica de un periódico bilbaino, 1858-18731. *La prensa de los siglos XIX y XX* (M. Tuñón de Lara dir.) Bilbao 1987, pag. 588

da ekonomi edo teknologiazko gaiak besteak beste hain zuzen ere, XIX mende hasieran Bergarako mintegiak Bilbo eta Euskal Herriko zaldun eta merkatarik haundien semealaben hezkuntz tokia zen. Bertan hezitu ziren, Gomez de la Torretarrak, edo Munibetarrak, Arrieta Mascaruatarrak, Eguia edo Landetxotarrak, Gasteizeko Ortes de Velasco. Baina gerora Santiagoko kolejoak hartuko du indarra, Kontsulatuak merkatal gaien irakaskintza bultzatuko du eta gai praktikoen irakaskintza izango da kezkarik nagusia. Baina Unibertsitatearen gabeziak erabateko eragina eta baldintzapena jarri bazuen, beste irakaskintza moeta hauetan, XIX mende bukaerarte, hezituko ziren igarobideko klase zuzentzaile berriak. Gerora, beste aldakuntza nabarmenak gertatuko ziren. Egia esan, Unibertsitatearen gabeziak, ikerketaren desbertebrazioa ekartzen zuen eta gizarte zientzien arloan, nabari izan zen gehien bat hutsune hori; azken batean, gogoeta eta eztabaidaren bidez arazoak kontrastatzeko zentrorik euskal Herrian ez zelako sortu. XIX mende bukaeran eta batez ere XX mendeko lehen hamarkadetan. Apaiztegiak bihurtu ziren gizarte zientzien eta humanitatearen arloan benetako ikerketa zentru. Adibiderik garbiena, Gasteizeko Seminario dugu. Bertan Barandiaran eta Lekuonak ikerketak bultzatu zituzten, eta metodo zientifikoaren aldeko jarraitzaileak erakutsi ziren. (38)

Telesforo Aranzadi moduko antropologoak, bere jakituna eta aintzindantza Estaduko Unibertsitateetan, Salamanca, Valladolid, Madrillen eta Barcelona adibidez, erakutsi behar izan zuten.

Azkenik zerbait erantsi behar da medikuntzaren inguruko zientzietaz. Hospital garrantzitsuak zeuden Bilbon eta Iruinean lege zaharren garaian. Nafarroan medikuntz ikasketak garrantzitsuak izan ohi ziren eta XIX mendean tradizio hori indartzeko ahaleginik ez zen faltatuko. 1817an, ikasketak, lehenago 1781.an amaitu zirenak, indarrean ezarri ziren eta 1829.an Iruinan *Real colegio de medicina, Cirugia y Farmacia* izenekoak fundatu zen eta 117 ikasle izan zituen. Bertako irakasleek hainbat liburu eta ikerketa produzitu zituzten (39). Baina 1839.an erret agindu batek, kolegioa itxi egin zuen.

Lanbide eskolak: Nekazaritzaren garapenerako, armeriakoa, papergintzazkoa.

Iraultza industrialaren eragina gihartu hala eta garapen ekonomikoaren araberako produkzio egiturak egokitzeko premia agertu hala produkzio gunetik kanporako hartzen zen prestakuntza gero eta garrantzitsuagoa bihurtu zen, produktibitatea irabazteko. Kontextu honetan ulertu behar dira, eskola sektorialak, Eibarren sortu zen Armeriako Eskola eta Tolosako Papegintzazko Eskola. Nekazaritzan, premia hori lehenago azaldu zen.

Madrillen, 1846.an jadanik selvikulturarako irakaskuntza sortu zen eta 1849.an laborantzazko praktikak burutzeko Eskola. Europako beste herrialdetan ere, laborantzarako Eskolak eurrez sortzen hasi ziren.

Bizkaian 1848.eko Batzar Nagusian horrelako baten premian zeudela azaltzen da eta 1850.an batzorde berri bat eratu zen *Fomento de la agricultura y arbolados* izenekoak. Honela lau probintzietan, 1850.eko hamarkadan, Nekazal eskolak indarrean ezarri ziren. Araba eta Nafarroako ahalegin handia egin zuten teknologia berria laborantzan sartzeko.

Bizkaikoa honela deitua izan zen: *Escuela práctica o casa modelo de agricultura* edo *Casa-Escuela de agricultura horticultura y jardinería* edo *Establecimiento de agricultura horticultura y jardinería*. (40) Izenburu bakoitzak zehaztu egiten du abel hazkuntzaren alde, behi eta abelgorriez bereziki, ikerketak eta irakaskuntzak zabaltzeko asmoa ere bazegoela. 1851.an bere ibilbidea hasi zuen. Diputazioak ordaintzen zuen gutzia, baina urte gutxiren buruan, porrota heldu zen. Zergatik?

Projektuaren sortzailea eta bultzatzailea P.R. Aurrekoetxea izan zen. Berez ideia ona zen, European eta erresuman horrelakoak eurrez eraikitzen hasi zuen eta Euskal Herrian ere 1850.eko hamarkadan herrialde guztietan antolatuko ziren.

Baina Erandion erosi ziren lurrak modurik egokienean ez ziren alokatu. Badirudi barantzantza eta lorantzantzarako egokiak zirenak aukeratuak izan zirela. Baina zuzendariak horrez gain «*fomento de la cria de ganado vacuno*» ere nahi zuen, baina ez bide zuen horretarako laguntzarik aurkitu. Hara zer idatzi zuen P.R. Aurrekoetxeak (41):

Jaurerriko finantzak defizit handian amildurik aurkitzen ziren eta Eskolako arazoak ardurarik gabe bazterturik zituzten, errepedigintzan ari ziren enpresak bereganatzen saiatu zirelako, gastu publikoaren dirutza gehienak horretarantz bideratu zituztenelako.

Jaurerrian ere laborarien etorkizuna abel hazkuntzaren eskutik zegoela, gero eta gehiago zabaltzen ari zen eta 1852.eko eta 1856.eko batzar nagusietan arazoa aztertu egin zen, eta proposamenak burutu ere bai (42). Urte hauetan jadanik, haundiki batzuk, Penafloordako kondea adibidez, Markinan, Gipuzkoako eta Durham zezen behiak uztartzetik jaiotzen zekorrak, bere lurretan hedaturik zituen (43). Eta 1858an, Bizkaiko Diputazioko batzorde bereziak, E. Garagarzari, Arabako Nekazarien Eskolako zuzendariari, abel hazkuntzaren garapenerako laborantzarako etxe eredugarri baten projektua eskatu zion, baina oraingoan ganaderitzaren garapeneraren ikuspegitik bereziki. Erandioko eskola oraindik irauten zuen, baina inolako eraginik gabe, mindegi eta lorantzantza gune bat bezala agertzen zelako alegia.

Horra bada, aurreko urteetako esperientzian oinarriturik, oraingoan abel hazkuntzaren orientabidea nagusizat jarri zen eta ondorioz, atzerititik (Inglateratik, Suizatik) behiak eta zezenak ekarri ziren. Bizkaian zehar sortu ziren etxe berezietan edukitzeko, laborarien zerbitzurako, bertako enden aberaskuntzarako, baseritarrei beraien behiak uztartzeko aukera eskainiz. Zelai ugati eza zen akatsik nabarmenena ganaderitzara sendo bat garatzeko, lur gehienak landu behar baitziren, etxerako mantenugaiak ateratzeko eta errenta ordaintzeko, ez bait zen hain erreza lur sail bat zelai bihurtzea. Zazpi urteren buruan 1865.an politika bide honek ere porrot egin zuen (44).

(40) AGIRREAZKUENAGA J.: Lan bide irakaskuntza XIX menderdian: Nekazaritzarako eskolaren sorrera, antolakunde eta amiera Bizkaian (1851-1860) *Cuadernos de sección Historia -geografía. Eusko Ikaskuntza*, zenbakia 8, Donostia 1986, 83-98 orrialdeak.

(41) A.G. Ministerio Agricultura Madrid.: 231 legajoa.

(42) Batzar Nagusiak 1852,64 eta 39 orr. Batzar Nagusiak 1856,60 orr.

(43) GARAGARZA E.: *Cultivo agrario de Vizcaya y sus necesidades más urgentes*. Bilbao 1859, 15 orr.

(44) Hara Martin Ozamiz, Kortezubitarren eritza:

<Que el ganado vacuno importado del extranjero... con el fin de mejorar la raza del país no ha correspondido a esperanzas de desear, como lo prueba la poca aceptación que tiene en el mismo con que vendiéndose mucho más barato, no puede competir en las transacciones con el de las razas terrenas">

B.A.D. Acuerdos de la Diputación, 107 liburua, 1864-XII-7, 1865 10.

(38) LANNON F.: «Un desafío vasco a la Iglesia española de la preguerra civil», in RIEV, 1986,79-96 orr.

(39) ESTORNES LASA J. *Los vascos y la universidad*. San Sebastián 1970, I, 95-99 orr.

Frakasu hauetan, zergatietariko bat, eta beharbada eragin zuzenena zuena, garaiko egituraketa sozialean legoke agian. Urte hauetan, %25 zen gutxi gora behera etxeko jaun jabeduna, Bizkaia eta Gipuzkoan behinbat eta gainontzekoak maizterrak edo jornalariak, etxerik etxe morrontzan ibiltzen zirenetarikoak. Inguruko herrialdekin parekatuz gero, jabedunen kopurua nahiko handia zen. Baina hala ere ez dugu ahaztu behar eguneroko mantengaien produkzio premiak ez zuela aukerarik eskeintzen ikaskuntzan eta esperimentera aritzeko. Hara zer idatzi zuen Oinatin finkaturik zegoen Nekazal Eskolako zuzendariak 1857.an (Ambrosio Gordo seguru asko):

«*La concurrencia de alumnos ha sido escasa, los propietarios no cultivan por su cuenta y no necesitan conocimientos, los labradores son inquilinos pobres y además dedican al trabajo sus hijos desde muy niños.*» (45)

Testu erabat adierazgarria eta argia hezkuntza sistemaren mugak ikusteko. Baina, 1852.an, Bizkaian, Estaduko Gobernuak inkestak antzeko erantzunak azaltzen dizkigu. Nekazari arrunt batek, etxeko errenta ordaindu behar zuen, familiarentzat elikagaiak, sendagaiak eta tabakoa atera; semealaben hezkuntzarako gehienetan gasturik ez zuen erabiltzen. 8 urtekin semealabak laborantzako lanetan hasten ziren.

Egoera honetan, ez da nahiko idea berriak edo eta irakaskuntza aukera eskaintzea ohizko produkzio moldeak hobetzeko. Nekazariak eragin material konkretu batzuen babespean aurkitzen diren bitartean.

Erandioko Eskolaren orientabidea beharbada ez zen izan ongi ulertua eta barazantza-lorazantza, orohar mugatua zen. Dena dela Bizkai mailan, barneko mekatuaren eskakizunei begira, barazkien produkzioak laborantza komertzializatuaren bidea urratzen zuen eta nolabaiteko industrigintza kateatu ere bai, aipatu dugun legez (46)

XIX mendearen bukaeran eta XX mendean Nekazal Eskolak jarraitu ziren, baina bere eragina zenbaterainokoa izan zen, ebaluatu gabe dago.

2. KULTUR GIROAREN IRAGAN HURBILA

Kultur produkzioa eta giroa ezin dugu gizartearen historiari atera. Ez da aparteko historia, historia sozialaren gunetarikoa baizik eta beraz, gizartearen bilakera politikoa eta ekonomikoaren baitan nahietaz kokatu beharra dago

Erromantizismoaren gorakadaz, herri izpiritu eta herri kultura agertuko zen benetako kultur eredu gisa. Beraz, ohizko herriaren manifestazioak gorapatu, nahi izango dira. Ilustrazioak ekarri zuen mundu ikuspegi orokor eta arautzailearen ondoan, tokian tokikoa indartuko da.

Prentsa bidez kultur giroaren barri jasotzen hasi zen, XIX mendean zehar. Hirietan, irakurtzeko gela publikoak «*gabinete de lectura*», ireki ziren. Bertan moeta guztietako aldizkari eta informazioak irakurtzeko aukera zegoen. Hirietako burgeseriak klub bereziak antolatu zituen eta kafetxeak ere eztabaida leku bihurtuko ziren. Joera politiko-ideologiko bakoitzak elkartzeko espazio propioa sortzen zuen. 1820tik 1823ra *sociedad patriótica* delakoak antolatu ziren eta Donostian *El liberal guipuzcoano* aldizkariaren arduradunak, talde liberal eratu osotzen zuten (47) Bilboko kasuan, 1827.an hainbat taberna eta kafetxe

batzuk zeuden. Ideia kontserbadore eta gerora karlista legez ezagunak zirenak, Erronda kalean bere egoitza propioa zuten, 1832 urtean. Bertatik bere eragin politikoa zabaltzen saiatzen ziren. Guda karlistaren ondoren, *Sociedad Bilbaina* izeneko dugu adibiderik garbiena. Liberal moderatuak edo kontserbadoreak biltzen ziren bertan eta Bizkaiko erakunde publikoetan eragin zuzena zuen. Bestalde, Bidebarrieta kalean, *Sociedad constitucional* delakoa antolatu zen. Bakoitzak bere aldizkaria zuen: *El Vascongado* lehenak *El Vizcaino originario* bigarrenak. (48)

Donostian ere, 1846.an jadanik *Reunión de amigos* izeneko elkarte antolaturik zegoen. Bertan, biblioteca eta «*gabinete de lectura*» izeneko gela zegoen. (49) Ezin utzi aipatu gabe Donostia eta Hernanin biltzen zen tertulia, Iturriaga euskaltzalea eta Donostiko merkatarik liberalak tarteko zirela. (50) Gasteizen ere garai berean kultur giro nabarmena somatu zen 1835 urtez geroztik eta 1842.an bai Gasteizen eta Oinatin, gobernaren aginduz, Unibertsitate gabe gelditu ziren. Dena dela, 1840.an, beste hiribuetan bezala, Gasteizen *Sociedad Gabinete de Lectura* izeneko fundatu zen, tertulia literario eta kultur giroaren gune izanik. Gerora, beste elkarte batzuekin bat eginik, Circulo Vitoriano delakoa fundatu zen. (51) Bertako giroaren adierazletzat har genintzake, bertan urte honetan sortu ziren kultur eta literario kutsuko aldizkariak, *El Lirio* edo *Revista Vascongada* izenekoak adibidez. Beraz, hirietan kultur giroa eta maila, pixkanaka populazioan gihartzen eta zabaltzen joan zen.

Baina erakunde publikoen joera, bere finantz arloko gastuak aztertu ondoren zen nolakoa zen? Esan beharra dago, kulturarekiko, harreman eta ikusmolde berrien hastapenetan aurkitzen garela. Hau da erakunde publikoak bere gain, hezkuntza eta kultur ekintzak hartzen hasi ziren. Bizkai adibidea besterik ez dut eskainiko:

1839-1841.eko garaian Bizkaiako Diputazioak ohizko pre-supuestotik 0,14 % bideratzen zuen Biblioteca, museoa sortzeko. (52) Beraz oraindik erakunde publikoak, kultura, ornidura gisa gehiago hartzen zuten, prestijiorako gehigarria balitz, bestelako ekintza produktibo bezala baino.

Euskal kultura Euskal Herrian produkzitzen dena edo euskal jendearen eraginez buruturikoa baldin bada, arlo asko daudela esango genuke. Beraz nahiz eta ez, nire gaitasuna arlo guztiak aztertzeko ez da heltzen. Lehen XIX menderdian euskal kulturaren ikuspegitik zera azpimarratuko nuke: Euskarekiko jabetasuna. Iparraldean, euskarak, espazio publikoak irabazten ditu, iraultza frantzesaren zenbait momentutan ofiziala bihurtuz. Hegoaldean, hizkuntza herriaren nortasunaren gunetzat hartzen da eta 1830an soziologia eta politizaren ikuspuntutik euskararen eragozpenak etorkizuneko gizartearen, Iturriagak, Gipuzkoako batzarretan aztertu zituen. (53) Ullibarriren ahaleginak ere aipatu behar dira. (54) Dena dela, erakun-

(48) AREILZA J.M., *Historia de una conspiración romántica*. Madrid, 1950

(49) MENDIOLA R., *op.cit*, 90 orr.

(50) MUGICA: *Carlistas, Moderados y progresistas*. San Sebastián 1951

(51) VELASCO E., *Crónicas y biografías alavesas*. Vitoria, 1910, orr. 56-57. Liburu honek, XIX menderdian, Gasteiz bizi zuen kultur giroaren erakusle dugu.

(52) Bizkaiko Jaurerriko Artxibategi Nagusia Gernikan, Comisión económica, 1 erregistroa.

AGIRREAZKUENAGA J.: Bizkaiko Museoa eta biblioteca publikoaren egitasmoa 1840.ean: Porrota edo jokabide paradigmakoaren hasieran» in X Congreso de Estudios Vascos Iruñea 1987, 334 orr.

(53) ITURRIAGA P.: *Memoria...* in LASA J.I.: *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco* San Sebastián 1968, 147 orr.

(54) ULLIBARRI: *Gutun liburua*. Gasteiz 1975

(45) *Memoria de los productos de la agricultura española...* 211 orr.

(46) *Memoria de los productos de la agricultura española...* 1.070 orr.

(47) FERNANDEZ SEBASTIAN J.: *La génesis del fuerismo. Prensa e ideas políticas en la crisis del Antiguo Régimen (País Vasco, 1750-1840)* Madrid, 1990, 1820tik 1823.eko giroa azaltzen du.

de publikoak euskal hizkuntza ikur sinbolikotzat erabiltzen hasiak ziren. Tradizionalistak, euskararen superbibentzia, gizarte tradizionalaren iraupenari lotu zioten Euskararen ideologizazioa sortzen hasten da. (55) Bertsolaritzaren zabalkunde soziala eta bereziki guda garaietan, garrantzia irabazi zuen. Iz-tuetaren lana aipatu beharra folklore eta etnografiaren arloan, baita ere euskal historiografian, berak idatzi baitzuen euskaraz dugun historiazko liburua.

Bestalde 1844.an, Espaniako gobernua probintzi bakoitzean, *Comisiones de monumentos Históricos y Artísticos* delakoaren sorrera agindu zuen eta probintzi bakoitzean sortu ziren, biblioteka, artibategiak, arte ederrak, arkeologia eta arkitektura zaintzeko. Euskal Herrian ere sortu ziren delako batzordeak eta bertoko elite politikoak aipaturiko arazoei aurre egiteko ardura hartu zuten, baina ea ondorio jakingarririk gabe. (56)

Mende bukaeran eta XX mendearen hasieran, aldizkari bidez eta tokiko historiak bultzatzen, eragingarriagoak bihurtu ziren.

Baina iparraldean gertakizun harria antolatu zen D'Abbadieren eskutik, beharbada bertan, lehen menderdian, hegoaldean baino nabarmenago sentitu zelako, lege zaharreko sistemaren amaiera. Eta honek, errebindikapen berriak sortarazi zituen, molde erromantikoen gorakadaren mendean.

D'Abbadie, 1853an Urruñan, euskal lore jokoak, antolatu zituen. Berez, poesi lehiaketa bezala hasi ziren denborarekin euskal kultura jatorraren eredu modukoa bihurtuko zena. Poesia eta bertsolaritza, herri literaturaren erakusle nagusia izango zen. Euskara bitarteko literarioa. Batzarrean jendea pilatuko da eta berau ekintzabide soil izatetik sakralizatuko da, erlijio katolikoaren manifestazio liturgikoaren bidez. Guzti honen bidez, herri izpirituaren ausnarketa eta beronen azalaztea lortu nahi zen. Baina kulturaren molde edo ikuspegi tradizionalistak gainditu nahian, D'Abbadiek antolatzen zituen lehiaketak kritikatu, M. Guilbeau eta J. Vinsonek, *Association Basque des Jeux Floraux* 1869.an sortu zuten. Bere jai propioak antolatu zituzten, ikuspegi errepublikanoz eta progresista. Lehena 1893.an bertan A. Champion zegoelarik. Bestalde, ezin dugu ahaztu, Baionan 1873.an sortu zen *Société des Sciences Lettres & Arts de Bayonne* izeneko elkartearen joera. Aldizkaria izango zuten, eta bertan inguruko gizarteaz ikerketak argitaratuko dira, gehienetan ikuspegi ebenementziala nagusi zelarik.

Gerora eta hego Euskal Herrian, euskal festen baitan, nekazal eta abel hazkuntzari loturiko erakusketak antolatzen hasi ziren. Euskal mundu tradizionalaren arazo ekonomiko eta sozialak plateatzen ziren, bertan agrarismoaren ideologia oinarritzen delarik. Baina historia ekonomikoaren arabera, badakigu jakin, berez ozeaniar isurkiko Euskal Herrian laborantza XVII-XVIII mendetan erroto zen fenomeno dugula. Eta XIX mendean, nekazal zibilazioa deritzona bere kinkaldi larrian eta atzatzeka, gainbehera zegoenean, bere hartan kontserbatu nahi zen euskal izatearen benetako gunearen erakusle gisa.

Delako euskal festek zera ekarri zuten: Lehendabizi, euskal hizkuntzaren, euskararen arrotasuna. Baina era berean, euskal kulturaren erredukzio edo txokoratzea bideratuko dute. Euskal kultura aldeanismo edo baserritarzearekin bat egiten du. Eredu hau ez zen ez barria. Moguelen idazlanetan argi eta garbi agiri da, *Peru Abarka* nobelan. Tradizioaren fosilizazioa

eta ohizko gizartearen berrinbenzioa agiri zaigu. Arau erromantikoak dira nagusi Europan eta tokian tokiko berezitasuna da agian balore nagusia, areago laboran gizarte marjinatuarekin loturik balego, bertan kondensaturik bait zeuden gizarte arkaikoaren esentzi onak, orokortasun eta unibertsalatasunaren aurrean. Ilustrazio uniformizatzailea arbiutuz, euskaldun izatearen arrotasuna ere agiri da. Hegoaldean, mugimendu kultural hau politizatu nahi izan zen. Euskalerrrikoek hala ere, bere saloan porrot egin bazuten ere, laster jaio berri zen euskal abertzaletasunak frutuak jasoko zituen. Ezbairik gabe, lehen abertzaletasunaren zabalkunderako, euskal festak, beharrezko giroa sortu zuten.

1876 eko ohizko foruen deuseztapenak frustazio ezinegona sortu zuen. Reclus geografo haundiak ondo definitu zuen. Euskal Herria, joan doa, desagertzerako. (57) Beraz lekukoak salbatu beharra daude. Herri baten hil tamua. Hortan datza euskal lore jokoen eta euskal festen benetako arrazoa. Helburua, kontserbazionismo ekologikoa, kultura barne. Eta hirietako biztanle batzuk, ohizko kulturaren berbikundeak benetako euskal kulturaren isladatzat hartuko dute eta harrobia lur zabalean aurkitzen zen, industrigintzaren abiada arina hirietako pentsamoldeak eta usteak aldatzen ari ziren garaian. Baina zein Euskal Herri zen joan zihoana galdetu beharko litzateke?

Euskara izeneko elkarte dugu hegoaldean, beste manifestazio garrantzitsua. (58) Iruñean fundatua eta euskal kulturaren berbikundeak euskal hizkuntzari loturik agiri zaigu, Nafarroan inoan baino azkarrago galtzen ari zen unean. Iturralde eta Campion, ziren buruzagiak eta N. Landa, euskal arrazari buruzko ikerketak hasten ditu. Bilbon **Euskalerrria** elkarte, Sagarminaga buru, fuerismo intransigentearen erakuslea. Donostian Manterolak *Euskal Ema* izeneko aldizkariaren inguruan giro barria bultzatu nahian zebilen.

Euskal festen balorapen osoa egiteko monografía sendoa beharko genuke. Euskal nortasunaren bateratzaileko ona izan zen, Lege zaharrean, probintzietan oinarritzen bazen izate politikoa, oraingoan euskal berezitasun etnikoa, gero eta indartsuagoa agiri zen nortasun politiko barri baten alde, aldatzen zegoen. Euskal herri-kulturaz kezka eta begirunea sortzeko ere interesgarria izan zen. Baina ideologikoki, paradigma horrek, ez zuen oferta egokia agian, industrigintzaren abidan sartzen zegoen herri batentzat. Ikerketaren zentzu kritikorik ere ez zen nabari.

1897.an euskal tradizioaren Kongresua antolatu eta ospatu zen iparraldean, Donibane Lohitzunen hain zuzen ere. Bere, *Société d'Ethnographie et des Arts populaires-en* eragipean kokatu behar dugu Kongresua. Ondoren argitaratu zen liburua, ikus dezakegunez, argi eta garbi euskara eta euskal kulturaren ikuspegi erredukzionista, paseista eta mugatua, go-raipatzen da, benetako esentziaren gune gisa. (59) Bestalde, J.Vinsonek, *Exposition Universelle* delakoa dela eta 1900.an Euskal Ikaskuntzen Kongresoa antolatu zuen Kongresuaren helburua honako hau: *Tous les sujets qui interessent le peuple, la langue et le Pays Basque*. Guztia azken batean, «*au progres general de la science, et l'amélioration constante de l'humanité*» (60) Argi eta garbi agiri da euskal ikaskuntzen au-

(57) RECLUS E., « Les Basques, un peuple quis'en va », *Revue des Deux Mondes*, 1867an argitaratua. Itzulpena ANGUIOZAR M., RIEV, 1929, 57-83 orr.

(58) ELORZA A, *l'ideologias del nacionalismo vasco. 1876-1937*. San Sebastián 1978, 11 orr eta ondokoak

(59) *La Tradition au Pays Basque*. Bayonne, Elkar, 1982 (reprint)

(60) Textua Baionako Biblioteka munizipalean agiri da Mr 110 eta J. Goihenetxek eman digu, makinaz idatziriko txostenean: *L' Apporf d'Eskual-zaleen Biltzarra dans la construction du champ culturel basque*, 10 orr.

(55) Ikus MOGUEL Vicenta: Ipuin onak. Donostia 1804 eta bertsoak in IRIGOIEN A.: Bilbo eta Euskara". *Euskera XXII* eta ZABALA M.: *Fabulas en dialecto vizcaino*. Bilbao, Euskal Editoreen elkarte, 1986

(56) AREILZA J.M.: « Un centenario olvidado. Las Comisiones de Monumentos del Reino. » in RSVAP, 1945, 149 orr.

rrean agiri ziren bi portaera eta joera: Batean altxor delakoaren kontserbazioa bestean, berriz, ikerketa zehatzaren gustoa, azterketa nagusi edo unibertsaleran baitan, euskal kulturaren ekarpena kokatzeko asmoz.

Giro honetan sortu zen **Euskaltzaleen Biltzarra** (61) eta M. Goihenetxe izan da bere sorreraz eta lehen bilakaeraz ardura den ikerlaria. 1901.eko Hendaiko euskal festak zirela eta Hendaian bertan ospatu zen kongresua euskararen arazo ortografikoak argitzeko. *Federation Litteraire Basques* sortu eta Campion eta S. Arana presidenteordeak izendatuak izan ziren. Euskal Herri osoko hizkuntza eta kultur erakundetzearen atarian gengozela pentsatzeko arrazoirik ez zen faltatu. Baina joera kultural eta politikoen arteko tirabirak berehala sortu ziren. S. Arana eta aranisten ustez, kultur ekintza abertzaletasun berriari itsatsirik joan behar zuen. Hau da, azken batean ekintzabide politikoa nagusitzat jotzen zen. Beste askok barriz, delako loturirik ez zuen hain aintzakotzat hartzen. Azkenik Euskaltzaleen biltzarra, 1902.an. Ondarrabian sortu zen. Hegoaldekoak bazkideen %40. Baina tirabiran. Politika aranista lagungarri baino oztopo gehiago izan zen, bertan botere eta politizaren logikak kultur ekintzaren gainetik ezarri nahi izan zirelako. Handik bost urtetara % 12 bakarrik ziren hegoaldekoak. Arantek alde egin zuten (62) Abertzaletasun aniztasuna bazirudien premiazkoa zela, euskal kultura garatzeko. Oraindik integrismo politikoaren ekimena sakonegia zen. Oportunitate galdua ezbaierik gabe, euskal etnari zegokion kultur eta hizkuntza jokamole bateratua bultzatzeko.

Iparraldeko, zenbait elite, euskal kulturaren formulario tradizionalistan murgildu ziren, hegoaldeak bereiztuz, eta elkarrekin. Euskaltzaleen biltzarra nolabait bereganatu zuten.: Kulturaren ikuspegi esentzialista eta ahistorikoa agiriko zaigu, imaginario errorantikoa berez berez etorriko eta inbentatuko zen eta euskararen defentsa folkloriko-kontserbadorea bihurtuko zen elkarrekin gune ideologikoaren eragile ideia litzatekelarik. Bestalde, denborapasarako elkarrekin zen, denbora libreetan diletantismoan eta solasean aritzeko, ikerketaren zentzua galdurik edo planteatu gabe. Apaizen eragina ere nabarmena zen(bazkideen %20). Azkenik, euskal hizkuntza, gizarte berriaren komunikazio tresna ez ezik, ideia barri eta liberalen aurkako benetako hezia bihurtzen saiatuko dira. M. Guilbeau eta Vinsonek euskaltzaleatasunaren alderdi liberala errepresentatuko zuten.

Euskal munduan, hobe esan, euskaradun munduan, honako giroa zegoen bitartean, Donostian, *Euskal Batzarre*, *Easo* eta *Bellas Artes* izeneko elkarrekin bat egin zuten eta 1899an *Amigos del Pais* izeneko elkarrekin sortu zen. Nolabait aintzina-ko Herri Adiskideen jarraipena izan nahian. Donostian, udal museoak antolatu zuten. (63) Mendeurrenak antolatu zituen, Elkaroneak (1922) eta Peñafloidako kondearenak (1929) baina ekimen handi gabe. 1943.an gerraren ostean indarberritu zen eta euskal ikaskuntzen erreferentia bihurtu

Comision de Monumentos delakoak, Ateneoak, langile artisauek soziedadek, *círculo de Bellas Artes*, *Academia de ciencias políticas y morales*, eta Bilbon bereziki *El Sitio* elkarrekin aipatu behar dira kultur kezken abiapuntu bezala. Aipatu

(61) GOYHENETCHE J., «Les origines sociales et historiques de l'association Euskaltzaleen Biltzarra» *Processus sociaux ideologies et pratiques culturelles dans la société basque*. Pau, Université de Pau et Pays de l'adour. 1985 79-91 orr.

Idem: Ideologies culturelles et espace social en Pays Basque de France a la veille de la première guerre mondiale. » in *La production sociales des espaces...* 81-90 orr.

(62) Ikus J. Goihenetxeren lanak

(63) MENDIOLA R., op. cit. 88 orr.

besteri ez ditugu egiten, etorkizunean sakonago aztertuko ditugulakoan. Baina guztien artean, *El Sitio* izeneko elkarrekin aipatu nahi nuke, beste paradigma kultural batetan finkaturiko elkarrekin bait dugu. Bilbon jaio zen 1872-1876.eko guda zibila amaitu eta gero. Bilbotarren liberalismoaren islada publikoa errepresentatzen zuen eta prozezio laikoak antolatzen ardura zuen. Bertan, hainbat hitzaldi eta eztabaida erakutsi ziren, Bilboko hiri industrialduak eskatzen zuen kultur maila eta kezka berriei egokiturik. Mundu mailako arazoak eta nolabait Espainiako nazional ikuspegia gauza bera balira bezala erakutsiko zituen.

Haren parean, eta kompetentzian, beste elkarrekin sortu ziren Bilbon, euskaltzaleatasunaren eta euskal abertzaleatasunaren islada gisa, *Centro Vasco* eta beste batzuk

Eusko Ikaskuntza, sortu zenean, Unibertsitatearen gabeziaren ondorioz eta euskal errealitateari buruzko, batez ere giza eta gizarte zientziei loturiko ikerketak bultzatzeko eta euskal nortasuna indartzeko, sortu eta garatu zen 1918 urtez geroztik. Antolatu ziren bai beste elkarrekin interesgarri asko hala nola, *Euskaltzaleak*, eta beste.

Beraz, XX medearen lehen herenean, euskal gizarte industrializatu barriari dagokion bezalaxe, kultur elkarrekin sorkunde eta zabalkunde izugarria gertatu zen. Baina Unibertsitate gabeko gizartearen, hainbat eta hainbat gizarte eta humanitate zientzietako gai, europear parametroetan planteatu ez ezik, txokokerian erortzen ziren. Bestalde, elizgizonak ziren modu sistematizatu batez oinarritzko prestakuntza hartu zuten eta bere eragina nabarmena izan zen.

Kultur produkzioa etorkizunari begira

1940 urtez geroztik, C. Minondo eta M. Quevedoren artikulua sintetiko aipagarria da, bertan azken urteotan zientzi-teknologiaren arloan batipat egindakoaren barri ematen digulako. (64) Baina zientziaren ekimena teknologia arloa mugaturik balezala bezala agiri zaigu eta giza edo gizarte zientzien arloko oinarritzko ikerkuntza eta kultur produkzioa azaletik baino ez da aipatzen, konturatu gabe oinarritzko edozein ikerkuntza giza eta gizarte zientzien paradigmatan planteatzen direla.

Bestalde euskal kulturaren polizentrismoa argi eta garbi geratu zen guda ostean, iparraldean eta hego Ameriketara asko garatu zelarik. Baina orain azpimarratu nahi nukena zera da: Euskal kulturatzat ulertzen dena, ostabere, sarritan erreferente prestigiduntzat baino ez erabiltzeko arriskuan dagoela, euskal produkzioaren ekimenari eragiteko balioko ez balu bezala. Baina euskal kulturaren produkzioak irabazi egin behar du zientzia-teknologiarentzat tradizionalki gorderik egon den espazioa. Kultur produkzioa ez da konplementoa, sistema produktiboan eragin zuzena duen fenomeno baizik. Balio sozialak, edozein gizartek behar dituen mentalitate berezi hori indartzeko unean dago.

Euskal kulturaren arloan, giza eta gizarte zientzien arloan, Unibertsitateen helburua lortu ondoren, zer egin. Gure ustez, kultur sare difusoa sortu behar, produktoak ernaltzeko. Ikuspegi zentralista eta apolineoa izan beharrean, gaizki ulerturiko arrazionalismo jakobinista ildokoa, zeinaren bidez, administrazio publikoko aparatoak dena konponbidean ezartzeko gai omen dira, gaur egunean, gizarte zibilaren protagonismoa eragin behar da. Ikerketa zientifikoaren estiloa sortu eta gihartu behar dugu, gizartearen maila eta espazio guztietan. Baina

(64) MINONDO C.-QUEVEDO M., La vida científica y tecnológica (1936- 1984) in *Euskal Herria. Erreslitte eta egistamoa. Realidad y proyecto*. San Sebastián 1985, orr. 325-340

nola? Taldeen azpiegitura indartuz, enkarguak eskainiz eta euskal kulturaren produkzioa industrigintzaren giroan murgildu arazten. Horra desafioa. Burokraten bidez sortu daiteke produkzioa baina zalantzan jartzen dut, biderik egokiena ote den. Zientziaren produkzioan dibertsifikazioa modu jakin batez indartu behar da, zientzi egiteko estilo eta metodoen dibertsifikazioa. Populazioaren aukeran egon behar da, baldintzak sortuz aldakuntza zientifiko eta teknikoan alde. Giroa, kultur habitoak, motibazioak oportunitateak eta azkenik pentsamentu zientifikoaren metodo eta teorien aplikapena. Horra bada, zientziaren garapenerako urratsak. Horra bada zientzia produktzeko konpromezua, ikerketan eta metodo zientifikoaren aplikapenetan diharduten elkarten autonomia zainduz. Azken hau guztion erantzukizuna delarik. Modu honetan logika eta pentsakera zientifikoaren estiloa eta praktika kultur identitatearen oinarritzko zatia bihurtuko zaigu.

Kulturaren zentzu paseista barik, nola edo hala erromantikoa, egunerokotasunari lotua eta etorkizunari begira gure ikerketa eta kultur produkzioak, burutzeko gai garena erakutsi behar genuke. Horregatik, status barria irabazi behar dute giza eta gizarte zientziak gure gizartean. Horretarako, administrazio publikoek, elkarreentzat, azterketa zientifikoak kezkatu dauden elkarreentzat, azpiegitura profesionalak segurtatzen badute, produkzio zientifikoari ekiteko, urrats haundia izango litzateke. Kontseilu koordinatzaileen ordua, pasaturik dago. Kultur ikerketa hezkuntza sisteman estuagotzen saiatu behar da. Eta kultur eta ikerketa produkzioak, giza eta gizarte zien-

tzien arloan ere, irabazi-kostearen arauaren bidez, neurtu behar dugu.

Guzti horregatik 1982.an Euskal Gobernuak ikerketa teknologikoak eragiteko, entitate tutelarrek sorkuntza asmatu bazuen, bertan Ikerlan, Labein, Inasmet, Ceit, Tekniker, daudelarrik, giza eta gizarte zientzietan beste horrenbeste sortu behar da: Ikerketa programa eta erakundetze sendoa, egon dagoenetik abiatuz. Ildo beretik, gizarte zientzien giroa azkartzeko, Euskal Herriko unibertsitateak egiten salatzen direnetik at, beharrezkoa da, sare unibertsitarioarekin batera, gizartean ikerketa taldez ornitzea euskal lurra eta talde bakoitzaren ubidez Euskal Herria kultur eta ikerkuntz programez urestatu. Horregatik, zera ikusten dugu beharrezko: Euskal ikaskuntzen garapenerako eskolaren sorketa, unibertsitate irekien egituren antzera, aspaldian Leoncio Urabayenek 1928.an esaten zuenaren bidetik, sistema tutorialean finkatuz bere baitan, ikerketa eta kultur produkzioa eragiteko eta zabaltzeko gai izango den erakunde sendoa. Azken batean, zabalkundearen bidez, kultur maila areagotuz eta bizkortuz, aukera emanez unibertsitateko egituretatik at bizi diren jendearentzat. Projektua jadanik, Eusko Ikaskuntzan aurkezturik dugu eta etorkizun hurbilean, martxan jarriko delakoaren esperoan gaude.

Azkenik, proiektio europearra lortzeko, premiazkoa da harreman zuzena lortzea, indarrean European zehar dauden erakundeekin hain zuzen ere. Eta aurkezpen gutunik onena geure produkzio sistematikoa izango dugu. Horra bada, benetakoa desafioa.